

B

BARREN

TOKIKOM



Danborrak girotutako jaia

Euskal sukaldaritzaren
errezeta ezagunenak
José Castilloren eskutik



EUSKARAZKO
LEHEN
SUKALDARITZA
BILDUMAREN
3. alea

José Castillo

BETIKO
EUSKAL
SUKALDARITZA

*José Juan Castillo sukaldaritzaren
— Casa Nicuesa —*

berriarekin
eskaintza berezia

*Aurreko bi aleak
ez badituzu eskuratu,
eskatu orain.
Hirugarren
alearekin batera
jasoko dituzu.*



EGIN ESKAERA ekainaren 11 baino lehen

www.berria.info • harpidetza@berria.info

943-30 43 45

laguntzailea:

FAGOR

www.fagor.com



www.TARTALO.com

AUKERA EZAZU,
BIZI EUSKARAZ
berria



Kilo bat eta erdi galdu dittut



Oin pare bat aste bokadillo bat eta Acuaris bat eskatu nittuan paperian bilduta Elgoibarko taberna batian, beste leku batera eramán eta han jateko asmoz: begetala + hirugiharra. Beranduxeau, jaten bukatu ostian, tiketari begiratu bat eman eta... 6,50 euro kobratu ziela ikusi naban. Hasieran, oker egongo zala pentsatu naban, baiña lagun batzuk ezetz esan zien, eurek ere holako zeozer pagatu izan debela han.

Erosketa asuntuak Ainaran kontua dira, eta nik prezioz ez dakat ideiarik ere. Hortaz, etxe ondoko supermerkatuara jaitsi eta prezioei erreparau nien

(oin gutxi Laukok erakutsi zidan prezioetan, eta letra oso txikiz, euro/kg azaltzen dala).

- ▶ Ogi barra haundixa: 0.84 EURO
- ▶ Letxuga: 1.75 euro/kilo/KILO
- ▶ Tomatia: 1.7 euro/kilo
- ▶ Atun latia: 120 gramo, 0.85 euro
- ▶ Hirugiharra: 4.5 euro/kilo
- ▶ Txaka: 100 gr, 1 euro
- ▶ Maionesa pote osuak 1.24 EUR; kuilarakadatxo batek (20 gramo) 0.2 euro
- ▶ Acuaris latia: 0.56 EURO

Goi Mailako Ingeniaritza ikasketak eginda dittudanez, kalkuladoria atera eta kontuak egiten hasi nitzan: hamahiru euro baino gutxiarekin hiru kilo eta erdi pasako bokadillua + Acuarisua dittut. Nik jandako bokadilluak tamaiña edarra zakan, eta hortaz, 400 gramo eskuzabal emango diodaz; supermerkatukua baiño zortzi aldiz txikixaua, hala ere. Hortaz, prezio bera ordainduta (6.5 EURO), kilo bat eta erdi galdu dittut bidian (Negozio ona egingo leukie estetika zentro bat irekiko balebe, pisua galdu besterik ez da egiten han)!!! Taberna horretako zerbitzua ona da, eta dudarik gabe balixoko dittu kilo erdi tomate eta beste kilo erdi hirugihar (al Cesar...), baiña, hala ere, ez jataz kontuak ateratzen.

Beraz, pentsakor, zera ondorioztatu naban: aluminiozko paperaren orde, zilar papera edo *papel de plata* (*plata de ley*, jakiña) erabili zebela bokadillua biltzeko orduan.

Iñigo Araujo

.....

“Tiketari begiratu, eta bokadilloa 6,50 euro!”

TRINITATEETAKO IRUDIAK JARRIKO DITUGU ASTELEHENEAN!



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net

 ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

HIZTEGIA LAGUN, **MUNDUAN BARRENA**



Juan Uria "Olaso", Miguel Mendikute "Mendi" eta Jose Mari Ansola "Korta".

Nork esan du ingelesa jakitea ezinbestekoa dela munduan barrena ibiltzeko? Juan Uria *Olaso*-k, Miguel Mendikute *Mendi*-k eta Jose Mari Ansola *Korta*-k, Europa, Asia eta Ameriketako hamaika bazter ezagutu dituzte, ingelesik jakin gabe. "Ingeles txikiei ez diet beldurrik nik, handiek beldurtzen naute", erantzun dio Kortak kazetariari, elkarrizketa eskatzeko telefonoz deitu dionean. Afizioz barik lan kontuengatik ibili dira han eta hemen, eta horrenbeste urteren buruan, oinarrizko lau berba ikasi dituzte ingelesez. Hala ere, hori baino gauza garrantzitsuagorik badela dio Kortak berak: "Dirua da gaur egungo hizkuntza. Kartera bete diru eta estomago ona izanda nahikoa da".

Ainara Argoitia

Erresuma Batua, Espainia eta Alemania alderik alde, Frantzia, Italia, Danimarka, Turkia, Errusia, Txekoslovakia zena, Txina, Japon, Korea, Thailandia, Malaysia, Taiwan, India, Saudi Arabia, Iran, Egipto, Brasil, Mexiko, Estatu Batuak (Texas, Kalifornia eta Atlanta), Kanada, Argentina, Brasil... Hegazkinean ha-

ra eta hona egindako orduak aparte kontabilizatuko balira, erretiroa hartzeko eguna gutxienez urtebete aurreratu ahal izango lukete, beharbada. Eta erretiroa hartzerako, gainera, bidaia agentzia batean lanean hasteko beste informazio eta esperientzia izango litzukete bilduta. Ez dute, baina, erretiroa lanarekin lotzen, ezta bidaia luzeekin ere. "Ingelesa jakin-

go banu, beharbada, joango nintzateke nonbaitera, emaztea hartuta, baina ingelesik jakin gabe... Orain arte moduan ibiltzeko ez behintzat", dio *Mendi*-k. Ezezko keinua egin dute beste biek ere buruarekin.

Orain 30 urte inguru hasi ziren kanpora irteten, eta egonaldi luzeak egin dituzte atzerrian, lanean. Danobat enpresako langileak

*Miguel Mendikute,
Txinan, txakurra jateko prest*

dira hirurak, erreminta makinako langile be-
launaldi baten ordezkari. "Inguru honetako
beste asko ere ibili dira gure antzera", dio
Mendik, apaltasunez. Eta badira, bai, doze-
naka gainera. Elkarrizketatutako hirurei, bai-
na, ez zaie asko gelditzen erretiroa hartzeko.
Korta astebetere barruan jubilatuko da, eta,
ospatzeko, gutxienez bost bat afari egin be-
harko direla dio aldamenetik Olasok. Mendi
eta berak, berriz, bi urte falta dituzte. Azke-
nak izanda, urterik luzeanak, ziurrenik, baina
bi urte baino ez, azken batean.

Kanpora egindako osteretan asko ikasi
dutela diote hirurek aho batez, baina mo-
mentu zailak ere izan dituztela nabarmendu
du Mendik. Berlingo harresia eraitsi aurretik,
Ekialdeko Alemanian gertatutakoa ekarri du
gogora: "Momentu kritikoak bizi izan geni-
tuen han. Horma edo murru hura bota aurre-
tik manifestazio gogorak egin ziren. Leipzi-
gen nengoen batean, kalera irten nintzen ba-
kar-bakarrik, eta plaza erdian nengoela hur-
bildu zitzaidan erderaz egiten zuen bat, eta
halaxe esan zidan: 'Kontuz ibili, zure pauso
denak zainduta ditugu-eta'". Aguro erretiratu
ei zen hotelera. Eskasa izaten zela dio: "Ha-
ra eta hona ibiltzen ginen, zelan genbiltzanik
ere jakin gabe". Muturreko pobrezia eta "zo-
na arriskutsuak" ere topatu dituzte. "Ekialde-
ko Alemanian ikusita nago ni harategi batean
odoloste bakarra zintzilik eta bost-sei andre
haren zain", esan du Mendik.

Estuasunak ere nahi baino gehiagotan
pasa dituzte. Baita ametsetan ere Kortak
behinik behin. "Ranblasen nengoen ustez,
eta halako batean begiratu dut atzera eta
ikusitako bost bat neri segika, gero eta
gertuago gainera. Hasi naiz saltaka, jo diot

ostikoa, eta beltza jo beharrean, tabikeari
danba nik!. Aitagarreba zegoen ondoko lo-
gelan lo, baina ez zen azaldu eta eskerrak!
Behatzeko azazkala galdu nuen, eta herren-
ka joan nintzen hurrengo egunean lanera".

Jende ona, berriz, leku guztietan topa-
tu dutela diote. Horren harira, Alemaniako
beste bizipen bat ekarri du Mendik. Inte-
prete zarauztar batekin batera joana zen
orduan Alemaniara. Garai hartan, 1988an,
herrialdea bitan zatituta zegoen, eta ekial-
deko Alemaniako autoek beste gasolina
bat erabiltzen zuten. Berlineko autoa alkatu
eta iritsi behar zuten lekutik lau bat kilome-
trora gasolina gabe gelditu ziren autopista
erdian. "Hantxe gelditu ginen, botata esa-
ten dena. Eskerrak interpretea neukan!.
Ordubete eman genuen zer egin ez gene-
kiela. Polizia ere etorri zitzaigun, baina ez
zigun irtenbiderik eman. Halako batean,
beste Alemaniako kotxe bat gelditu zen
gure aurrean, soka bat atera, gure kotxea
bereari lotu eta han eraman gintuen".

Euskaldunen izen ona oso zabaldua da-
goela adierazi dute horren harira, baina eus-
kaldunen pareko langile finak ere topatu di-
tuzte han-hemen. "Txarrikeri handiena Es-
painian bertan tokatu zait neri", bota du Kor-
tak. Eskarmentua zer izango den, baina. Ha-
lakoetarako ere topatu dute irtenbidea Ola-
sok eta Mendikutek. "Ez dago Farias kaxa
bat eramatea baino gauza hobirik. Farias
bat eskaini eta direnik alferrenak ere lanera-
ko prest!. Alemanian gertatu zitzaidan polita,
feria batean. Portugalgo grusta bat bazen
han, arranke handirik gabekoa, eta eskaini
nizkion Farias batzuk. Hurrengo egunean,
fenwitch-a, grua txikia... nahi nuen dena
neukan eskura. Anayak-ekoak ere han zi-



ren, sinistu ezinda. Zer egin nion galdezka
hasi zitzaizkidan guztiak". Orain ere, erama-
ten ditu Olasok puro kaxak, txakolina, espa-
rragoak, urdaiazpikoa... makina eramaten
duten bilgarri berean sartuta. "Ezkutuan, ja-
kina".

Farias kaxek beste erraztu dizkie saka-
lako telefonoak kanpoko egotaldiak. "Mobi-
la bizi erdi da", dio Kortak. Sakelako telefo-
norik ez zen garaian, askotan "galduta" sen-
titu izan zirela aitortu dute hirurek. "Indian
gertatu zitzaidan neri ona. Hango herri bate-
an nengoen, eta tailarreko beste baten bila
joan behar nuen egun jakin batean airepotu-
ra, New Delhira. Sei bat orduko bidaia zen,
baina urakanak harrapatu ninduen, eta 24
ordu behar izan nituen iristeko. Irtsi nintze-
nerako, baina, nire laguna hotel batera joa-
na zen, eta nik jakin ez nora! 30 hoteletik go-
ra pasatu nituen banan-banan, baina topa-
tu nuen, aizu!", dio Olasok. "Jaungoikoa
existitzen dela!", aldamenetik Kortak.

Bakardadea eta familia

Bakardadea arintzeko, asko lagundu
die telefonoak. "Guri balio izan zigun, bai-
na oraingo gazteei... askorik ez", esan du
Kortak. "Lehen, astean behin edo deitzen
genuen etxera, eta ilusioz egoten ginen,
noiz egun hori iritsiko. 'Hurrengo jaiari'
deituko dizut esaten genion emazteari,
eta zain egoten ginen. Orain, baina, edo-
noiz deitzen dute etxera, eta horrenbeste
Internetekin eta... telefono dei batek ez
ditu asetzen. Orain ikutu beharra izaten
da, eta distantziara hori egiteko modurik
ez dutenez asmatu oraindik... Beti falta
izaten da zerbait", aitortu du barrezka.

Juan Uri "Olaso" Txinan.



Bakardadea gogorra dela esan dute biek, eta etxekoek eurek beste sufritzen dutela zehaztu du Mendik. Bina seme-alaba dituzte hirurek, eta umetan haiekin egon ezin izana oso gogorra egin zitzaion. “Gure emazteek merito handia dute. Zorteko gizonak gara, etxera bueltan sekula ez dugulako sesiorik izan. Orain asko ibiltzen dira *“mi mujer me deja”* eta halakoekin”. Bat dator Olaso ere. “Guk sekula ez dugu ezetzik eman, derrigorrean izan ez bada behintzat. Aste Santua zela, Gabonetako oporrak... Zortzi urte egon naiz ni neu, abuztua libre hartu gabe. Makinak gelditzen zituztenean joaten ginen gu konponketak egitera”.

Ezerezarekin ere jarri dituzte makinak martxan. Gerriko batekin behin, eta etxe bateko hodi zati batekin, beste behin, Olasok aitortu duenez. “Mediako tubo beltz bat falta nuen behin Indian, makina bat konpontzeko eta huraxe falta. Hurrengo egunean, kaletik noala, hara nun ikusten dudan nik behar nuen neurriko tubo bat etxe zahar bateko faxadan. Bi metroko zatia ebagi eta huraxe jarri nion makinari, etxe hartan ez zegoen urik egoteko itxurarik eta”. “Bata konpondu, eta bestea izorratu”, gehitu du Kortak, barre algaraka. Gaur egungo gazteak “hobeto preparamatuta” ikusten dituzte, baina euren baldintzetan lan egiteko, makalagoak.

Zer ote da platerekoa?

“Jan gabe eta ia kalerik ikusi gabe ere egon behar izaten da kanpoan batzuetan. OKa jaso arte, ez da ezertarako gogorik izaten, gainera”, dio Mendikutek. Eta edozer jan baino jan gabe nahiago batzuetan Olasok behintzat. “Begiekin jaten ez badu, estu ibiltzen da hau. Behin 11 kilo galduta ere etorri zen kanpotik”, esan du Kortak. Txakurra janda daude behin-

tzat Mendikute eta Olaso, Txinan. Jakinaren ganean, gainera. “Ezjakinean, beharbada, jango nuke gehiago ere, baina zer zen jakinda...”, adierazi du Miguel Mendikutek. Okerren arrain gordinarekin pasa duela aitortu du segidan. “Sushi hori... horretxek hartu ninduen estu Korean”. Txinan “bitxuak” jaten amorratuak direla diote hirurek aho batez. “Ohera aurretik ere, toalla bola bat egin eta han ibili behar izaten da zomorroak akabatzen. Haiek denak platerean jarri eta haiek ere jan han. Geuk ere bai, igual, menuan zer jartzen duen ere ez dugu jakiten eta”, esan du Olasok.

“Gure makina guztiak ikasi dituzte Txinan, eta han egiten hasi dira orain, merkeago”

Lagartoa, matxinsaltoak, eskorpioia, sugea... dena barrura han. Asiako herrialde askotan merkatuak ikustekoak direla gaineratu dute. “Han dena bizirik saltzen dute, eta gero norbere aurrean hiltzen dute. Taiwanen sugea ekarri ziguten behin, poltsa borobil batean. Zintzurretik heldu eta bisturi antzeko batekin burua kendu zioten, eta han jarri zuten tantaka, edalontzia odolez bete arte. Txupito antzeko bat zen. Nik neuk eskatuko neuke probatzeko, baina lagunak tripak botako zizkidan eta ez nuen hartu”.

Lekuan lekuko ohituretara egokitzen ikasi dute, baina ez kostatzen gabe. Gogoan dute Txinara joan ziren lehenengo aldía. Komunikatzen ez zen orduan han, eta haren lekuan zanga antzeko bat izaten zen kalean. “Gerra sasoiaren moduan”. Han jartzen ziren denak, ilaran, parez pare beste bat zutela. “Txinor inguratuta, zeinek egingo zituen han egin beharrek?” bota du Olasok. Indian, berriz, dutxarrik ez. Norberak gorputza xaboiu, eta aulki batera igo eta kubo bete ur botatzen ei zien gainetik behera gizonetako batek. “Lau rupia eman eta hurrengo goizean ere han-

txe egoten zen hura prest, kubokada ur hartuta”.

Txina, beste mundu bat

Txinoak bereziak direla diote horren harira, eta zerbaitek harritu baditu, hango garaioak harritu dituela. Gurditxo bati tiraka doan txirrindulariak betetzen du han taxista lana sarri. Zerbitzua, baina, ez da beti nahi besteakoa izaten. “Jarri ginen behin bi gizon, tipo horretako karro batean. Hura izan zen on! Gu jartzearekin batera karroak behera egin zuen, lurra jotzeraino, eta bizikletak, gora. Han zebilen txino gaixoa pedalei eragin eta eragin, eta gu *quieto* hantxe. *Jajaja*”, esan du Mendikutek. Beste behin, semaforoan geldi zeudela, jarri dira Olaso eta haren lankide bat bizikletari bati begira. Atzean txerri pinto bat zeraman, eta hasi dira gure euskaldunak diskusioan, bizirik edo hilda ote dagoen. “Nik baietz, eta lagunak, berriz, ezin zela hura bizirik egon. Jaitsi naiz autobusetik, egin diot kolpe buztanetik, eta han hasi zen txerria kurrinka. Han ezkutatu zen gure txinoa kale baztar batetik, abiada bizian”. Indiara egindako beste bidaia batean, berriz, eskatu du fenwich bat, eta handik orduerdia, han bistatu zaió bufalo bat, gurdinari tiraka.

Ehunka anekdota gordetzen dituzte, batez ere Asiakoak. Txinatarrak ilara egiten aldrebesak direla azaldu du bat-batean Olasok. Beti atzetik bultzaka ibiltzen ei dira. “Ez dira gauza handiak, baina txiki denak ez dira onak, aizul”, bota du segidan. Behin, aireportuan maletak fakturatzeko zain zegoela, hasi ei zitzaizkion, bultzaka, handik edo hemendik aurrera egin nahian. Eta “ez ba!” pentsatu zuen berak. Topatu zuen aurrera egiteko bidea. Indarrez hanka zapaldu, aldamenara begiratu, eta txinatarrak euren artean sesioan jarrita, berak aurrera.

Lanean, baina, txinatarrak bakean laga behar zaiela diote hirurek. Aurrera egin nahi bada, haiek zaintzea ezinbestekoa dela uste dute. “Hara eraman ditugun makina guztiak ikasi dituzte, eta lan hori bera egiten hasi dira, merkeago gainera. Hobetzen dituztenean izango dira kontuak”, ohartarazi du Kortak. Berak aurki hartuko du erretiroa, baina irribarre maltzur bat egin, eta tarteka tailerrera agertuko dela esan du parez pare daukan Joseba, Miguel Mendikuteraren semea, xaxatu nahian: “Hau zuzendu beharra daukat, bere aitak ezin du eta”.

Jose Mari Ansola “Korta”, San Antonion (Texas, AEB)



*Kafe
bat,
momentu
bat*



Arzak Jatetxean lagun bi-
rendako afari biko zozke-
tan parte hartzeko baldin-
tza bakarra da kafe baten
inguruan bizi izan duzun
momentu berezietako bat
ekainaren 15a baino le-
hen gurekin partekatzea.
Parte hartzeko txartelak
hartutako kafe bakoltzare-
kin emango zaizkizue ho-
nako establezimenduetan:

Arkupe
Asgi
Bolintxo
Paulaner Txarriduna
El Gautxo
Txarriduna Hotela
IMH
Iratxo
Zaharren egoitza
Kaia
Karobi
Kartutxo
King Kong
Lanbroa
Landa
Madigans
Marem
Orbea
P.S.O.E.
Merkatu Plaza
Gabi
Belaustegi Jatetxea
San Pedro
The End
Toletxe
Urkiola
Usatorre

Kafe bat ez da edari bat bakarrik. Askoz gehiago da. Kafe baten inguruan, nahiko sarri, momentu bereziak bizitzen ditugu. Zure lagun onenari maitemindu zinela kontatu zenion eguna. Zure gurusoekin geratu zinenean azkenean zure bikotearekin etxea erosi zenuela aitortu eta eurengana bazkaltzera bakarrik domeketan joango zinela esateko. Realak bere lehenengo liga irabazteko El Molinón-en Zamorak sartutako gola ospatzeko eman zenuen jautzia.

*Kafe bat solasaldiak dira. Berriro topo egiteak. Ezusteak. Momentu bereziak, azken batean. Horregatik Urkotronik-en kanpaina dibertigarria abiatu dugu, "Kafe bat, momentu bat" izenarekin. Momentu berezi horiek gogoratu ditzazun nahi dugu, irribarre bat aterarazi eta, horrez gain, jatetxe oso berezi batean lagun bi-
rendako afaria irabazteko aukera eman nahi dizugu.*



urkotronik



Ostalaritza



Vending



Dibertimenduzko jokoak

www.urkotronik.com 902 127 137 Eibar



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrak, eta eskerrak!

Eskerrak eman nahi dizkizuegu Lerun Txiki baserrian eta inguruko etxe eta zelaietan egin nahi duten industriguneari ezezkia eman zenioten guztioi. Sentsibilitatea azaldu duzue, eta bat etorri zarete ideia batekin: Lerun Txiki bizirik!

Ehun bat lagunek planaren kontrako errekurtsioa azaldu genuen. Plenoan, batzuei bost axola izan zitzaion "lau katuren" iskanbila gogoia, eta industriguneari alde bozkatu zuten. Beste alderdiek, berriz, ez alde eta ez kontra. Horie ere bost axola zaie gelditzen diren azkenetariko lur emankorrek oraingoan ere industriari bideratzea. Betirako galduko diren paraje paregabeak. Ezetz espero dugu!

Uste dugu jende gehiagok azaldu dezakeela Udalaren hirigintza planaren gaineko interesa; gestioaren inguruan, demagun: nola, zergatik, zertarako eta zenbat diru bideratzen den gauza batzuetarako, eta, era berean, zergatik ez, zertarako eta zenbat diru ez den bideratzen beste gauza batzuetarako. Horren atzean, herriak zer behar duen eztabaidatu beharrean, alderdiak euren interesak babesten ari direlakoan gaude.

Eta eskerrak ez diren bi mila errekurtsio aurkeztu! Historia ez zen aldatuko, baina norbaiti loa kenduko lioke. Edo, ez! Politikariak beste *pasta* batekoak dira!

Umorea ez digute kenduko. Laster, porlanezko zaparrada gero eta sarriago egingo du, eta lehen tankeetako bat Lerun Txiki da.

Gelditu Lerun Txikiko industrigunea.

Okil Beltzak 

Krisia gainditzeko, burujabetza!

Espainiar Estatuak indarrez bere eredu ekonomiko, politiko eta soziala inposatzen dio Hego Euskal Herriari, eta espainiar ekonomia beti ahula eta menpekota izan da. Enpresarioak Estatuaren itzalpean negozioak egiten zituzten jaunkilak eta espekulatuzaileak besterik ez dira izan. Horiek azken hamarkadan lurra, azpiegiturak eta etxebizitzarekin espekulatu dute euroaren poderioaz eta Europako fondoaz baliatuz. Burbuila puztu dute, eta lehertu denean ekarri dizkigute ekonomia-aren gainbehera, langabeziaren igoera eta zorren pilaketa.

Estatu espainolak ekonomikoki porrot egin du, eta denbora luzean ez du bururik altxatuko: zorrak kitatzen ez dituen bitartean nekez egingo dira inbertsio berriak, ez dira lanpostuak sortuko eta ekonomia ez da suspertuko. Ekonomia eredu desberdinak daude, lagundu nahi diren talde sozialen arabera. Eta espainiar eredu banketxeen eta kapitalisten taldeari laguntzearena da, langileon dirua erabiliz horretarako. Gainera, kapitalisten diru-gosea ase ezina denez, oraindik gehiago nahi dute: lan erreformak, gastu sozialaren murrizketa... benetako eztabaida ondasunaren banaketa denean: Aberastasuna badago, baina dirua betikoen poltsikoetan geratzen da.

Ezinbestekoa da sistema kapitalista hau errotik aldatzea, eta pertsonen zerbitzuan dagoen beste sistema sozial eta ekonomiko berri bat eraikitzea. Baina al daketa politikorik gabe ezinezkoa da al daketa soziala. Estatu espainolari lotuta

jarratzea gure lepoan harkaitz bat lotuta izatea da, bera itotzen den neurrian Euskal Herria ere itoko delako. Euskal herritarrontzat inoiz baino beharrezkoagoa da Estatu espainolarekin ditugun loturak apurtzea, burujabetza politikoa berreskuratzea eta gure bidea egiten hastea. Independentzia nahia izateaz gain, beharra ere bada une honetan.

Elgoibarko Ezker Abertzalea 

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 · 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi | KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia | HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia | PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz | MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue | KOLABORATZAILEAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odría, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza, Jairo Berbel.
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Eva Garcia

80 urte baino gehiagoko aktibitatearen ondoren, giltzaz itxiko dute aurten Pilar ikastetxeko atea, behin betirako.

Hantxe geldituko dira ikasmahaiak, arbelak, mapak, kolorez forratutako liburuak, eta hobeto edo okerrago, bere egitekoa bete duten horrenbeste tresna.



Miriam Garcia

Hamaika urte pasatu genituen Pilar Ikastetxean mahai, arbel, liburu, eta plastilina usain artean. Bakoitzak garai hartako oroitzapenak era batean edo bestean gordeko ditu. Nik nere oroi-menean gordetako ibilbidetxo partikularra egin nahi dut.

Irakaslearen izena zeraman klasean hasi ginen gu, eta ez ikasturtearen izena zeraman gelan: “Zenbagarren mailan zabil-tza?”, “Arantxan”. Urteak pasa ahala, jolastorduan futbol kantuan jolasteko eskubidea irabazi genuen. Ia egunero jausten zen baloiren bat errepidera, eta boteka ikusten genuenean, “ibaira ez, ibaira ez!”... oititz egiten genuen denok. Baina ibaira erortzen ziren gehienak. Balo horietako bat berreskuratzen zuena heroi bihurtzen zen segundo batzuetarako. Azkenean, zortzigarren mailara iritsi eta nagusien gailurra ikutu genuenean, jolastokiko harmailen goi-goiko maila konkistatu genuen.

“Ikastetxe bat ixten dute, eta harekin batera, herriko historiaren zatitxo bat ere bai”

Ikastetxe bat ixten dute, eta harekin batera, herriko historiaren zatitxo bat ere bai, hainbat belaunaldiren eskola garaiko oroitzapenak betirako giltzaperatuta geldituko direlako. Berri horrek tristetu egin gaitu piskatxo bat, arrazoi pedagogikoengatik baino gehiago, herriak galduko duen bizitasunagatik, Elgoibarko eskola guztiek eta haien jarduerak gure herriari amasa eman diotelako urteetan.

Nork ez du gordetzen bihotzean haurtzaroko egun berezi horietan bizitakoa? San Pedroko txangoak, Olentzero iristen zen eguna, garra-sika abesten genituen kanta guztiak, plastilinen usaina, inauterietako astearteetako barreak, eskolako amantalak, irrist egitea debekatu-ta zegoen eskailerako eskudela, iturriak, liburutegi txikia... Azken finean, eduki teorikoak transmititzea, profesional trebeak izatea eta instalakuntza zoragarriak edukitzea ez da garrantzitsuena. Lehengoan lagunekin zera komentatu genuen: aspaldi konturatu ginela dena ez genuela eskolan ikasi, baina, esaten duten bezala, bidea eginez egiten da. Eta agian, hezkuntza bihotzeko kontua baino ez da.



“Aldaketa ez da hain handia. Zahartzaroan, pertsonak ume izatera bueltatzen direlako”

Zuk diozun bezala, eskolak ez digu dena irakasten, eta ikasitako gauza asko ahaztu ditugu dagoeneko [ez nago ziur, adibidez, erro karratu bat egiteko gai izango nintzenik orain]. Baina gure oroi-menak badaki gauza bereziak gordetzen.

Orain arte ikastetxe bat izan zena zaharrentzako egoitza bat bihurtuko omen da. Ondo begiratuta, aldaketa ez da hain handia. Zahartzarora, pertsonak ume izatera bueltatzen diren adina delako. Horra hor ixtear dagoen beste zirkulu bat.



Elgoibarko Udala



Lau jardunaldi falta dira Bigarren Mailako Liga txapelketa amaitzeko, eta lau talde daude Lehen Mailara igotzeko lehian. Lider dago Reala, eta lau puntura dauka laugarrena.

Lortuko du Realak Lehenengo Mailara igotzea?



Kristobal Agirre
40 urte, muntatzailea

Bai, aurren, bai! Lau partida falta dira, eta bi irabazita nahikoa izango du mailaz igotzeko. Datorren aste-koa irabazten badu etxean, igoko da. Lehenengo postuan dago, eta beste guztiak baino aukera handi-
goa dauka. Jendea urduri jartzen hasi da, baina igoko dira. Seguru!



Maite Ansola
36 urte, postaria

Bai, seguru baietz! Buruarekin baino gehiago, bihotzarekin eman-
dako erantzuna da, baina aurren lortuko duela uste dut. Hala ere, ez da erraza izango. Mailaz igo ondo-
ren, ikusi egin beharko da Lehe-
nengo Mailan jokatzeko moduko taldea den.



Fermin Guerra
66 urte, jubilatua

Bai, dudarik gabe! Joan zen as-
tean bezala jokatz gero, seguru igoko da. Betisen kontra ondo joka-
tu zuten, eta epailearen erruz galdu zuten partida. Lau puntuko aldea nahikoa dela uste dut. Datorren denboraldian Athletic-en kontrako derby-a izango dugu.



Pedro Salinas
56 urte, zaintzailea

Igo egin behar du, derrigor! Bi-
garren itzuliko azken partidetan be-
hera egin du taldeak apur bat, bai-
na nik uste dut aurren lortuko due-
la mailaz igotzea. Golak sartuko di-
tuen jokalariren bat behar du, eta
hori garrantzitsua izango da Lehe-
nengo Mailan jokatzeko.

II. URTEURRENA

ASIER ARANBERRI GUEREÑO

2008ko maiatzaren 31n hil zen, 23 urte zituela.

Haren oroimenez II. urteurreneko mezara gonbidatzen zaituztegu bere Elgoibarko familiak, zapatuan, maiatzak 29, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



ESKERTZA

MERTXE DACOSTA CRESPO

2010eko maiatzaren 16an.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

“Ez niri agur esan, gero arte baizik.”





Herri barrura sartzeko sarrera bakarra ez da nahikoa: “Aurrera beharrean

atzera goaz, edo? Elgoibarrera sartzeko sarrera bakarra daukagu orain, bestea Olason baitago, ia Elgoibartik kanpo. Horrez gain, Madalako zubitik sartuz gero, sekulako ilarak sortzen dira Guass pareko errotondako semaforoetan, eta baita Txarriduna pareko zebrabideetan ere. Hurrengo sarrera jarri dezatela Maltzagan! Zubi bakarra gutxi dela uste dut herrira sartzeko, eta besterik ez bada, Sigmako zubia berreskuratu behar dela iruditzen zait”.



Kiroldegi aurrean bidea zulata dago: “Olaizaga kiroldegi aurrean sekulako zuloa dago. Auto gidariak zulo hori ez zapaltzeko kontrako norabideko errailean sartzen dira, eta horrek arriskua sortzen du. Ingurune hori nahiko estua da bi auto elkar gurutzatzeko, beraz, zulo hori konpontzeko eskatzen diot Udalari. Jende asko ibiltzen da kiroldegi inguru horretan, eta garrantzitsua da bidea egoera onean egotea”.

Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibar.koizarra.com / 943 744 112



Eskerrik asko, zapatuko elizkizun ederragatik: “Elizkizun ederra ospatu genuen joan zen zapatuan, San Bartolome parrokan, eta herriko zenbait gaztek sendotzako sakramentua jaso zuten. Jose Ignacio Munnillak eman zuen meza, eta eskerrak eman nahi dizkiot erakutsitako hurbiltasunagatik, berak esandako hitzekin maitasuna eta itxaropena transmititu zituelako. Eskerrak, baita ere, Benantziori eta elizkizunean parte hartu zuten guztiei”.



**CORDON
VILARCHAO**

San Roke, 7 behe
Pol. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 748 670

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak ezartzeak
Laketadura: eguzi, aluminio, PVC
Pintura orokorra

eluzko
BIMBAUM

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Franzisko 49 - I Tel: 943 741 189

Eguzki plaka fotovoltaikoak jarriko dituzte Mintxetako kirolgunean eta Herri Eskolan

Foru Aldundiak sustatutako egitasmoa da, eta 235.056 euroko aurrekontua du

Energia berriztagarriak sustatzeko, eguzki plaka fotovoltaikoak jarriko dituzte Mintxetan eta Herri Eskolan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin. Udalak “ohitura garbiak” bultzatzeko sortutako *Elgoibar Berdea* proiektuaren barruan sartzen da egitasmo hau, eta Foru Aldundiak finantzatuko du, Gipuzkoan energia garbiak bultzatzeko egitasmoaren barruan. 235.056 euroko aurrekontua izango du proiektu horrek.

Mintxetako eguzki plakak aldagelen erai-kinean jarriko dituzte, eta Herri Eskolakoak, beriz, ikastetxeko teilatuan bertan. Ondo bidean, urte amaierarako jarriko dituzte. Proiektua, baina, zabalagoa da. Izan ere, inguruotako enpresek proiektu honekin bat egitea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren helburua. Enpresen teilatuak eguzki panel



gehiago jartzeko baliatu ahal izatea, azken batean.

Proiektu pilotu honetan lau herri- parte hartuko dute: Elgoibarrek, Oñatik, Zaurutzek eta Zegamak. Herri horietan guztietan, 15-20 KWeko eguzki instalazio fo-

tovoltaikoak jarriko dituzte. “Laguntza fiskalak emanda, eguzki plaka fotovoltaikoak jartzea inbertsio bideragarria izan daitekeela frogatu nahi du Foru Aldundiak”, azaldu du Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak.

Herritarren iritzia aintzat ez hartzea egotzi dio Okil Beltzak taldeak Elgoibarko Udalari

Herritar talde batek Hirigintza Antolamendurako Plan Nagusiaren kontra aurkeztutako alegazioak aintzat hartu ez izana leporatu dio Okil Beltzak taldeak Elgoibarko Udalari, eta gezurretan aritzea eta “makillaje berdea” erabiltzea egotzi dio Alfredo Etxeberria alkateari.

Udalak proposatutako planak ingurumena babestu beharrean etxe eta poligonoak “neurri gabe” ugaritzea ekarriko duela salatu dute: “1.300 etxebizitza egiteko zorakeriarekin jarraitzen dute, nahiz eta INEk populazioaren hazkunderik ez aurreikusit. Lurraren harraparia da, eta natura, landareria, flora, fauna eta paisaia hirugarren mailan uzten ditu”, adierazi du Okil Beltzak-ek, prentsa ohar baten bidez. Horren harira, esan dute gaur egungo industriaguneetako lokal hutsak erabili ordez, “herriko lurrik onenak txikitzeko gogoz” jarraitzen duela Udalak. Era berean, baserri auzoak herri gune bihurtzeko ahalegina salatu dute, eta Hirigintza Antolamendurako Plan Nagusian Gaztetxea aipatu ere ez dela egiten ohartarazi diete herriko gazteei.

Alkoholiko Anonimoen Elkarteak 25 urte bete ditu

Alkoholiko Anonimoen Elkarteak 25 urte beteko ditu aurki (ekainaren 13an), eta urteurrena ospatzeko eta urte horietan guztietan egindako lana ezagutarazteko, ate irekiak egingo dituzte, ekainaren 18an. Egun horretarako, herritar guztiak gonbidatu dituzte Santa Klarako konbentuan duten lokalera. Han, alkoholarekiko menpekotasuna izan dutenen esperientziak entzun ahal izango dituzte. Hamabi lagunek sortu zuten elkarte 1985ean, eta horietatik bik jarraitzen dute. 629 141 874 da harremanetarako telefonoa.



Lekua **Osasun Zentroa**



Elgoibarko Udalak hala eskatuta, anbulatorioa Plaza Txikiko Aita Agirre eraikineran ekartzeko baldintzak ematen diren aztertzen dihardute Jauriaritzako teknikariek. Alfredo Etxeberria alkatearen arabera, Hiri Antolamendurako Plan Nagusia aldatzeko egindako proposamenen artean, anbulatorioa lekuz aldatzea eskatu zuten hainbat herritarrek, eta horietako askok Plaza Txikia aipatu zuten anbulatorioa jartzeko leku egokitzat. Era berean, eta alkatearen arabera, Jauriaritzak begi onez hartuko luke lekualdatzea, egungo kokapenaren inguruko kezka agertu izan duelako aurrez.

Berbia **EAren sinadura bilketa**

Osakidetzak Elgoibarko anbulategiko gauetako larrialdi zerbitzua kentzea nahi duela salatzeke, Eusko Alkartasunak ekimen horren aurkako sinadura bilketa egingo du bihar, maiatzaren 29an, San Frantzisko iturriaren aurrean. Goizeko 11:00etan jarriko dute mahaia, eta eguerdiko 13:30ak arte egongo dira han. Iragarri dutenaren arabera, ekainaren 5ean kenduko dute anbulategiko gauerditik aurrerako larrialde zerbitzua.

Irudia **Merkadilloa**

Lau urteren ondoren, herri erdian da berriro merkadilloa. Zeresan handia eman zuen bere garaiari merkadilloa Plaza Handitik Sigmara eramateak, eta jende ugari mobilizatu zen lekualdatze haren kontra. Apirilean jakinarazi zuen Udalak maiatzean merkadilloa Plaza Txikira eta Leku Ederrera ekarriko zuela, eta atzo, hilabeteke azkeneko eguenean, jende ugari gerturatu zen hara. Saltzaileek eta herritarrek oro har gustura hartu dute erabakia, baina berandu datorrela salatu askok.



Ekainaren 5ean zabalduko dute Idotorbe-San Pedroko elkarte

Bihar zortzi, ekainaren 5ean, inauguratuko dute Idotorbe-San Pedroko elkarte. 12:00ak aldera zabalduko dute, eta ordubetez nahi duen guztiak izango du barrua ikusteko aukera. Ondoren, 13:00ak inguruan, harrera ekitaldia egingo dute, eta bertan Udal Txistulari Taldeak eta Haritz dantza taldeko dantzariak parte hartuko dute, besteak beste. Ekitaldi horretan auzoan hildako hainbat lagun omenduko dituzte, denak ere proiektu honetan lan eginda-koak. Bertsolarien eta herri kirolen txanda izango da gero, eta haiek bukatutakoan, 14:30ak aldera, bazkaltzeko batuko dira elkartearen bertan.

1960an jaiotako kinto bazkarirako izena emateko epea zabalik dago oraindik

1960an jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute bihar zortzi, ekainaren 5ean, Sigma Jaietxean. Antolatzaileek luzatu egin dute izena emateko epea, eta horrenbestez, interesatuek aukera dute oraindik. Horretarako, 85 euro sartu beharko dituzte ondorengo kontu korrontean: 2101 0205 72 0012579165.

Zortzi lanpostu betetzeko jendea behar du Elgoibarko Udalak

Brigadarako sei langile, FPleko informatiko bat eta Enpleguko eta Tokiko Garapenerako agente bat behar ditu Elgoibarko Udalak. Eskerak egiteko epea, ekainaren 2an bukatuko da. Eskerak Internet bidez egin ahal izango dira bakarrik, www.redtrabaja.es helbidean sartuta. Kontratazio horiek Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarekin elkarlanean egingo dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, Udalaren webgunean aurki dezakezue: www.elgoibar.org.

IRITSI DIRA TRINITATEAK



Egunak joan eta egunak etorri, maiatzaren amaierara iritsi gara, eta hemen dira berriro ere Trinitate jaiak. Tradizioz jaiak Mendarokoak zirela diote historialariek, eta elgoibartarrek bere egin zituztela. Azken urteotan bi herrietan ospatzen dira jaiak, eta aurten ere, halaxe egingo da. Gaur hasi eta astelehenera bitartean, ez da aspertzeko unerik izango.

Ainhoa Andonegi

Musikak, dantzak, danbor hotsak, artisautzak eta ferriak bat egingo dute asteburu honetan Elgoibarko kaleetan. Ume zein nagusiek izango dute non aukeratu, izan ere, egitarau zabala prestatu dutelako aurtengo Trinitate jaietarako. Agendan irakurri daiteke egitarau guztia.

Harri beltzarekin deman

Egitarauan aipamen berezia merezi du bihar egingo duten idi demak. Jose Salegi *Belarreta*-ren eta Evaristo Valdes *Juanategi*-ren idiak Harri Beltzarekin egingo dute probaldia. Belarretaren idiak izango dira proba egiten lehenengoak. Hogei minutuko saioa izango dute hiru idiek proba egiteko. Normalean idi pareak ibiltzen dira probetan, eta Belarretak hiru buru ekarriko ditu Harri Beltzari tira egiteko.

Evaristo Valdesen txanda etorriko da ondoren. 1.300 kiloko idi pareka ekarriko du Valdesek *Juanategi* baserritik Nafarroa Plazara, eta beste hogeit hamar minutu izango dituzte Harri Beltzarekin lanean jarduteko

Probaldiaren ondoren Jose Salegi "Belarreta" omenduko dute antolatzaileek, idi probetan egindako ibilbideagatik. 84 urteko mutrikuarra Zumarragan bizi da gaur egun, baina 20 urte baino gehiago eman zituen Elgoibarko Belarreta baserrian, eta hortik datorkio ezizena.

Harri zaila

2.100 kilo pisatzen ditu Harri Beltzak, baina pisua baino gehiago, harriaren forma bihurriagatik da ezaguna. Mugitzeko oso zaila zelako kendu zuten Harri Beltza idi-probetatik, eta 50 urte inguru erabili gabe egon ondoren, Soarteren idiak saiatu ziren iaz Harri Beltza mugitzen. Sekulako ikusmina piztu zuen probaldiak. 20 minutuko tarteak zeukaten lanaldia amaitzeko, eta idiek ahalegin handia egin zuten arren, bi plaza eta 4,20 metro besterik ez zuten mugitu Harri Beltza.

Ekitaldi haren ondoren, harri beltzaren fama "txarra" areagotu egin zen. Bigarren aukera bat izango dute bihar, Belarretak eta *Juanategi* Harri Beltzaren izena garbitzeko. Eguerdiko 12:30ean hasiko da idi dema, Nafarroa Plazan.

2.100 kilo pisatzen ditu Harri Beltzak, baina daukan forma bihurriagatik da ezaguna

DANBORRA, ZAPATU GAUEKO PROTAGONISTA

Trinitate jaietan aipamen berezia merezi du, zalantzarik gabe, Nagusien Danborradak. 210 lagun inguruk hartuko dute parte, eta berrikuntzak eta sorpresak izango dira.

Gazta izango da aurtengo gaia. Hiru karroza irtengo dira danborradan, eta guztiak gaztarekin eta artzaintzarekin zerikusia izango dute: bildotsak erreko dituzte batean; bestean hiru bildots eramango dituzte bizirik, eta hirugarrena Idiazabalgo gaztaren museotik ekarritako elementuz hornituko dute. Azken honetan, Mausitxa baserriko Rosa Mari Salegi ere joango da.

23:30ean elkartuko dira danborroleak eta barrileroak Nafarroa Plazan,

eta Errosario kaletik joango dira Plaza Handira. Denak formatu ondoren, bandera altxatu eta kanoi jaurtialdiarekin hasiko da danborrada, 00:00etan. Hori baino lehen, sorpresa zaratatsu bat ere egongo dela iragarri dute antolatzaileek.

Danborradaren ibilbidean ere aldatu egingo dituzte aurten. Madalara iristean, errotondan lagako dituzte karrozak, baina danborradak Upaiz Zaharra kaletik jarraituko du, Herriko Antzoki pareraino. Itzulera Pedro Mugurza etorbideetik egingo dute.

Bi ordu inguruko iraupena izango du danborradak, eta herria zeharkatu ondoren, Plaza Handian amaituko da.


Herriko Antzoki pareraino iritsiko da aurten danborrada



ARTISAU AZOKA, DOMEKAN

Domekan, artisauen txanda izango da. 10:30etik 14:30era artisau baikoitza bere ofizioan arituko da Leku Ederren. Aurten Euskal Herri osoko 25 artisau etorriko dira, eta horietatik hamar elgoibartarrak izango dira.

- **Irati Agirreazaldegia:** Bitxiak.
- **Argiñe Rubio:** Bitxiak.
- **Xabier Isasti:** Egurrezko lanak.
- **Jose Membrillera:** Eskulanak.
- **Antxon Fresnedo:** Itsas korapiloak.
- **Mari Karmen Elortza:** Kakorratz lanak.
- **Arturo Andrade:** Lutheria tailerra.
- **Eulali Moreno:** Makramea eta harizko lanak.
- **Emi Nogales:** Margoak.
- **Egur tailerra:** Margoa eta esmaltea.



TRINITATEETAKO AZOKA BEREZIA, ZAPATUAN

Elgoibarko baserrietako produktuak eta abereak izango dira Trinitateetako azokako protagonistak. Bihar, 9:00etatik eguerdi aldera arte egongo dira ikusgai, Plaza Txikian eta Leku Ederren. Horrez gain, kalitatezko produktuak dastatzeko aukera ere izango dute azokara hurreratzen direnek: oilasko lumagorria, basatxerri haragia, Elgoibarko baserrietako ogia eta Zeletako piperrak.

ABEREAK

- **Arizti Txiki:** Pirenaika.
- **Berdeskunde:** Pirenaika.
- **Basueta:** Limusinak.
- **Orube:** Limusinak.
- **Uba Haundi:** Limusinak.
- **Lekunberri:** Mestizoak.
- **Irunatxiki:** Suitzarrak, mestizoak.
- **Zulueta Bekoa:** Blondak.
- **Irunaso:** Betizuak, ahuntzak, pottokak...
- **Akei:** Enkarterrietako astoak.
- **Egi:** Astoak.
- **Arostegi:** Astoak
- **Aldazelai:** Behorrak eta zaldia.
- **Ziarda Txiki behekoa:** Behorrak.
- **Garate:** Zaldiak.
- **Juaristi Haundi:** Zaldiak.
- **Azaola:** Poniak.
- **Irunaberri:** Pottokak.
- **Bertoso:** Txerriak.
- **Mausitxa:** Ardiak.
- **Sagarraga:** Ardiak.
- **Azkarate:** Ardiak.
- **Gelatxo:** Ahuntzak.
- **Iriarte:** Ahuntzak, antzarrak.
- **Artazo:** Ildiak.

BASERRIETAKO PRODUKTUAK

- **Zabaleta:** Barazkiak eta ogia.
- **Mausitxa:** Gazta.
- **Lizundia Txabola:** Gazta, ogia, intxaurrak.
- **Ertzil:** Gazta.
- **Mintxeta:** Gazta
- **Basueta:** Barazkiak eta gazta
- **Txillarre:** Barazkiak

BIZI POZA TXARANGAK HASIKO DITU MENDAROKO TRINITATEAK

Mendaron ere ospatzen dituzte Trinitate jaiak, herriko eraikin zaharrenaren bueltan. Jai herrikoiak izaten dira, eta urtetik urtera gorabehera gutxierekin mantentzen dute egitaraua. Lekuak berak, baina, oso berezi egiten ditu jaiok, bai bertakoentzako eta baita gertuko askorentzako ere. Izan ere, Astigarribiako San Andres basilizarekin batera, Mendaroko eta bailarako ermitarik zaharrena da Trinitate. Hala jaso zuen bere garaian Juan Jose Goikoe-txea historialariak, *Historias de una Gipuzkoa desconocida* izenburuko liburuan.

Urtero bezala, zuhaitza jasotzearekin batera hasiko dituzte jaiak, eta hiru egunez trikitilariak, bertsoak, herri kirolak eta nahi beste jan eta edan izango da Trinitate Jaien bueltan. Aspaldiko tradizioa da. Elgoibarko Trinitate Jaiak, esate baterako, Mendarokotan dute jatorria. Historia liburuetan jasotakoaren arabera, garai batean ganadu eta barazki feria handia egiten zen Mendaron, eta jai hori Elgoibarrera eraman zuten gero elgoibartarrek. Azokarik egin ez arren, jaiari eutsi diote mendarorrek, neurri batean Mendarozabal auzoko dozena bat lagunekoa taldeak egindako lanari esker. 1958. urtean hartu zuten jaiak antolatzeako ardura hori, eta aurten 52. urtea dute.

Zaharretan zaharrena

Inork ez daki ermita noizkoa izan daitekeen, baina oso antzinakoa dela esatean bat datoz historialariak. Hori bai, erai-



Ezkerretik hasita: Joxe Mari Iriondo, Jesus Iturria, Martin Ulazia, Angel Iriondo, Joxe Mari Iturria, Antonio Iriondo, Bixente Olazabal, Joxe Mari Mugertza eta Agustin Lazarobaster.

kuntzari begira jarrita, erraz antzeman daiteke ermitari berrikuntza bat baino gehiago egin dizkiotela urteetan. Antza denez, kareharriz egindako hexagono itxurako ermita izan zen hasieran, gaur egungoa baino baxuagoa. 1663. urtea aldera [data horixe irakur daiteke ur bedeinkatuaren ontzian], berritu omen zuten ermita, erre-kako harriak eta burdinoletan sobera gelditutako kareharri landua erabili. Ordu-tik, beste makina bat aldiz egin behar izan dituzte obrak, inguruotako ermitarik zaharrena zutik mantentzeko. 1980an, esaterako, teilatua eta barruko aldea txukundu zizkioten, herrian bildutako 360.000 peze-

tarekin. Boluntarioek jardun zuten orduan lanean, eta ermitari eusteko, bi zutabe handi jarri zituzten barruko aldean. Denborak aurrera egin zuen, baina, eta gaur egungo jai batzordekoak ermitak beste berritu baten premia zuela jabetu ziren. Hala jakinarazi zioten Udalari, eta halaxe hasi ziren han eta hemen diru bila. Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gotzaitegiak, eta herritarrek emandako diruarekin [300.000 euro] egin zituzten azkeneko obra handiak, 2008-2009an. Beste aurpegi bat du orain ermitak, eta beste itxura bat izango du bihartik astelehenera bitartean.

EGITARAUA

MAIATZAREN 29a, ZAPATUA

17:00 Arbola jasotzea, Mendaroko Bizi Poza txarangak girotuta. Kanpai jotzea eta etxafuegoak.



MAIATZAREN 30a, DOMEKA

10:00 Mendaroko txistularien kalejira
11:30 Meza nagusia. Elizako abesbatzak parte hartuko du, eta baita Ameikutz musika eskolakoez ere.

Ondoren, txistulariak eta trikitilariak izango dira. Urtero legez, Bitoriano Loiola "Ospas" eta Sabin izango dira trikitilariak.

12:30 Herri kirolak: Urdax Magunazelaia abadiñoarra ariko da harria jasotzen, eta Arkaitz Olano leitzarra eta Ugaitz Mugertza mutrikuarrak jardungo dute aizkoran.

MAIATZAREN 31, ASTELEHENA

11:00 Meza santua, Trinitateko basilizan
12:00 Mendaro Ikastolako gaztetxoaren bertso saioa. Ondoren, hamaiketakoa, Laja eta Landakanda trikitilariak.

14:30 Herri bazkaria, Toki Alai jatetxean
20:30 Herri afaria Aizpe gastronomia elkartean, trikitilari eta bertsolariekin

Ekaineko barixakuetan musika eta antzerki emanaldiak eskainiko dituzte Madalako parkean

Big Band taldearen kontzertua izango da lehenengo ekitaldia, ekainaren 4an

Barixakuetan herrian sortzen den kale giroa indartzeko asmoz, hainbat kultur ekintza, [kontzertuak eta kale antzerkia, batik bat], antolatu ditu Udalak, ekainerako, eta Madalako parkean egingo dira. Big Band taldearen kontzertuak estreinatuko du ekaineko barixakuetako programazioa, hilaren 4an. Elgoibarko Musika Bandako hainbat kidek eta beste musikari batzuk osatutako taldea da Big Band, eta ohiko bandek ez bezalako musika egiten dute. Pianoa eta baxu elektrikoa bezalako instrumentuen laguntzaz, jazz eta swing estiloko doinuak eskaintzen dituzte. Iban Guinea musikari gaztearen ekimenez sortu da taldea. San Anton Egunean, joan den urtarilaren 17an, aurkeztu zuten taldea jendaurrean eta Herriko Antzokia txiki geratu zen orduko hartan. Datorren astekoa taldearen bigarren kontzertua izango da.



22:30ean hasiko da musikaldia, esan bezala, Madalako parkean.

Ekainaren 11n Expression Sonora talde elgoibartarrak eskainiko du kontzer-

tua; 18an Superplast antzerkia taularatu-ko du Hortzmuga taldeak, eta 25ean, Pikor taldearen *Ellas bailan solas* antzerkia izango da.

150 gazte inguruk hartu zuten parte HARRO2 taldearen aurkezpen ekitaldian



Maiatzaren 21ean egin zuten HARRO2 taldearen aurkezpena, eta herriko 150 gazte inguruk hartu zuten parte. Txotxongilo emanaldiarekin ekin zioten prentsaurrekoari, eta ondoren, taldearen manifestua irakurri zuten. Elgoibarko gazte mugimendua bateratzeko helburuz sortu dute taldea, "pluraltasunez eta etiketarik gabe". Manifestua irakurri ondoren, Maixitxa txarangarekin egin zuten kalejira, eta iluntzean, Madalako parkean afaldu zuten. Afaldu ostean jolasak eta karaoke jaia izan ziren Madalan.

Lerun Txiki baserri okupatuaren bosgarren urteurrena ospatuko dute

Bost urte pasatu dira gazte talde batek Lerun Txiki baserria okupatu zuenetik, eta bihar egingo dute ospakizun ekitaldia. 21:00etan hasiko da jaia, Lerun Txikin bertan. Karkaba, Koello 104, kaosareNerasoak, Atraku eta El fuego y la palabra taldeek kontzertuak eskainiko dituzte. Ondoren, DJak jardun- goko dute musika jartzen goizaldera arte.

Kale Kantarien entsegua gaur, Kultur Etxean

Elgoibarko Kale Kantariak entsegua egingo dute gaur arratsaldean. Parte hartzeko interesa dutenak 19:00etan agertu daitezke Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Bihar, hileko azken zapatuko ferian, 12:00etan irtengo dira, Nafarroa Plazatik.

Erreminta makinaren biurtekoa

MIKEL ARTOLA, AFMko nazioarteko arduraduna

“Enpresen arteko lankidetzak izan daitezke gurean tresnarik eraginkorrena”

Astelehenean zabalduko dute makina erremintaren bi urtean behingo azoka, Barakaldoko BECen, eta azoka hori hizpide hartuta, Mikel Artola AFMko nazioarteko arduradunarengana jo du BARRENEk. Azoka dela-eta, atzera eta aurrera dabilta egunotan, baina Mikelek tartetxo bat egin du bere agendan, gure galderei erantzuteko.

AINHOA ANDONEGI

Krisi egoeretan lagungarriak dira era honetako azokak?

Bai. Krisiari aurre egiteko kosteak murriztea ezinbestekoa izan ohi da, eta azoketan partehartzaileek diru asko inbertitzen dute-nez, koste gehiago jasan beharrak zalantzan jarri dezake horrelako tresnen eraginkortasuna. Baina azokak bezero eta eragile ezberdinen bilgune apartak dira, eta alde horretatik, haien ekarpena ezin da ukatu. Gainera, antolatzaileek feriaren formatoa eta balioa hobetzeko lanean dihardute, informazio gaindosia daukagun aro honetan azoken ekarpenak handia izaten jarraitu ahal izateko. Eskaria suspertzeko daukaten indarra ere aipatu daitezke, nahiz eta azken urteetan funtzio hori piskat moteldu den, gure makinaren salmenta operazio konplexu eta garestien eraginez.

Zein egoera bizi du erreminta makinaren sektoreak Euskal Herrian, eta bereziki, Elgoibarren?

Egoera zailean dago, industria sektore gehientsuenak bezala. 2008. urte bukaeran merkatuak sekulako geldialdia izan zuen, eta hori jasaten ari gara hemengo ekoizleak zein-gainerakoak. Suspertze zantzuak ahulak dira oraindik, baina gure bezero diren sektore batzuek aurreikuspen hobeak dituztenez, eta merkatu geografiko batzuk dagoeneko nahiko sendo daudenez, badago susperraldirako aukera.

Nondik etor daitezke sektorearen suspertzea?

Merkatua suspertzea ezinbestekoa da aurrena, eta Alemaniak hobera egiteak asko lagundu dezake, Europaren motore industrialia delako. Gure makinak balio handikoak eta garestiak izatean, ekonomia-aren eta gizartearen konfidantza mailak oro har eragin nabarmena dau-



ka gure salmentetan, eta egungo sentsazio kaskarrak gainditzen joan ahala, erraza ez iruditu arren, inbertsio giroak hobera egingo du. Horrez gain, sektorearen berezko kompetentzia handiagatik, estrategiak eta baliabideak etengabe hobetzen jarraitu behar dugu, lehiatu ahal izateko.

Beste herrialdeekin alderatuz, uste duzu hemengo enpresak hobeto prestatuta daudela krisiari aurre egiteko?

Oro har ondo prestatuta daude, zailtasunak zailtasun. Internazionalizazioa eta teknologia garapena eta berrikuntza izan ohi dira lehiakortasuna indartzeko aipatu ohi diren bi ardatz nagusiak, eta horretan dihardugu orain ere, lehen bezala. Esportatzeko ohitura aspalditik barneratua daukagu, eta gaitasun horrek leku askotan saldu ahal izateko abantaila dakar. Iaz, adibidez, gure produktioaren %75 esportatu genuen. Teknologia garapenari eta berrikuntzari dagokionez, pilatuta daukagun esperientziak ingurune lehiakor bat errotu du gurean, ekoizle, hornitzaile, hezitzaile, ikertzaile eta eragile ezberdinen konzentrazioarekin. Neurri handi batean badakigu, gure bideragarritasuna kalitatezko produktuen eta bezeroaren beharretara egokitutako ekarpenen aldetik doala.

Gaindituko dira noizbait krisiak eragin dituen kalteak?

Bai! Bideragarritasuna eta lehiakortasuna etengabeko hobekuntzaren eskutik datoz, eta krisi egoerek horren beharra areagotzen badigute ere, hobekuntza etengabea izan behar da lehiatu ahal izateko, bai krisi egoeratan eta baita garai oparoetan ere. Gure sektoreko krisiak ez dira makalak izaten, eta handiak pasatutakoak gara lehen ere. Oraingoaren adinakorik ez dugula ezagutu entzuten ari gara, eta kalteak eta aldaketak beraz ez dira txikiak. Baina baikorrak izateko arrazoiak badaude: alde batetik, balio eta ezagutza handia daukagu, eta horrek lehiatu ahal izateko eta garatu ahal izateko baliabideak ederki zorrotzu dizkigu (pertsonek heziketa, teknologia, internazionalizazio ahalmena, berrikuntza, lankidetzak, kudeaketa sistemak, eta abar). Bestalde, sektore

kontzientzia badaukagu, eta barneratua daukagu ezinbestekoa dela gure sektorea, ingurua, lan-sarea, eta industria defendatzea eta bultzatzea, eta horrek aurrera egiten jarraitzeko indarra eta laguntzak ematen ditu.

Adituek diote Asia eta garatzeko bidean diren beste herrialde batzuetatik etorriko dela ekonomia suspertzeko bidea. Hemengo enpresek zer indar dute herrialde horietan?

Gure esportatzeko indarra Europan gauzatu izan da gehienbat, baina merkatu berriak garatu ahala, bertan ere lan handia egiten ari gara. Txina, adibidez, gure hirugarren merkaturik garrantzitsuena izan zen 2009an, India bosgarrena eta Errusia seigarrena. Dena dela, beste merkatu batzuen gainbehera medio, zaila da merkatu edo segmentu erosoak aurkitzea, eta merkatu indartsu hauetako kompetentzia maila izugarria da.

Hemengo enpresa asko ez dira gai epe motzean eskari handiei erantzuteko. Zein izan daiteke irtenbidea? Enpresen arteko fusioa, beharbada?

Epe motzean ez erantzutetokoa ez da guztiz zuzena. Gure ezaugarrietatik, beste herrialde batzuen kostu baxuetan

ekoizteko ahalmenik ez daukagu, eta horrek beste estrategia batzuen bitartez lehiatzera garamatza: kalitatea eta bezeroen beharrei egokitzea. *Stock*-ak, beraz, ez dira gure jarduneari ohikoak, beste ekoizle eta herrialde batzuenak baizik, eta beraien epe motzeko erantzun ahalmena ez daukagu. Baina produktu ezberdinak ari garela ulertu behar da. Fusioak maiz aipatzen dira, gure neurri txiki edo ertainak lehiatzeko desabantail handi bat ezartzen digun heinean. Eta egia da gure neurri horrek eraginik badaukala zenbait operaziotan eta zenbait egoeratan, baina neurri handiago batek ez ditu, besterik gabe, abantailak bakarrik ematen. Lehen aipatutakoak dira enpresen egoera hobetzeko aldagai funtsezkoak, baina neurriari dagokionez, enpresen arteko lankidetzak izan daiteke tresna emankorra, eremu ezberdinetako lankidetzarekin. Gure konzentrazioak horren alde egiten du, eta esperientzia eta eragileak ez zaizkigu falta.

“Alemaniak hobera egiteak asko lagundu dezake”

BIEMH azoka, Barakaldon, BECen

Erreminta makinaren sektorean Europako hirugarren azoka garrantzitsuentzat jotzen dute adituek BECen eta AFMk elkarlanean antolatutako azoka hau. Astelehenean zabaldu eta bihar zortzi, ekainaren 5ean, itxiko dute, eta nazioarteko 1.076 fabrikatzaile, inportatzaile eta banatzaileen erakus mahaiak izango dira bertan ikusgai. Erreminta makinako erreferentziatzeko herrialdeek, Alemaniak eta Italiak esate baterako, protagonismo nabarmena izango dute bertan, eta BECen izango diren hamar enpresatik lau (%42) atzerrikoak izango dira. Elgoibar eta Mendarotik ere joango dira batzuk. Hona hemen, zerrenda.

- Etxe-Tar S.A.
- Burgelu, S.L.
- Pixel Sistemas S.L.
- Ferreteria Unceta S.A.
- Metrologia Sariki S.A.
- HRE-Hidraulic S.L.
- Kondia M.E. Taldea S.R.U.
- Fyteibar S.L.L.
- Goiti Sdad. Coop.
- Ideko S. Coop.
- Danobat Group S.Coop.
- Cometel S.A.
- Goratu maquinas herramienta S.A.
- Dano-rail S.Coop.
- Danobat Sdad. Coop.
- Estarta rectificadora S. Coop.
- Urkunde S.R.

Edu Uribek 25 ordutan amaitu du 'Kantabriako infernua'

27 lagunek osatu zuten 125 kilometroko ibilbidea

Edu Uribek *Kantabriako infernua* izenez ezagutzen den ultratrail gogorrean hartu zuen parte joan zen asteburuan, eta 25 ordu behar izan zituen proba amaitzeko. Cabezón de la Sal (Kantabria, Espainia) herriko inguruetan egiten da mendi itzulia, 125 kilometroko ibilbide gorabeheratsuan. Ibilbidearen zailtasunari, beroa gehitu zaio aurtengo edizioan. 70 lagunek ekin zioten probari, eta 27 bakarrik iritsi ziren helmugara. Edu Uribek 22. postuan amaitu zuen 125 kilometroko ultra trail proba. Beroaz gain, ibilbidea txirringularrarekin partekatu beharra eduki izana izan zen Uriberen ustez gogorrena: "Portuak jaiste tokatzen zitzaigunean, gure albotik ziztu bizian pasatzen ziren txirringularrak, eta behin eta berriaz bazterrerara jo behar izaten genuen. Horrek asko zaildu zuen gure proba".



Edu Uribe, Anbotoko kilometroko bertikalean.

Ainhoa Lendinezek irabazi du Hondarribiko triatlói herrikoia emakumezkoetan



Lendinez, ezkerretik lehena.

Ainhoa Lendinezek irabazi du Hondarribiko triatlói herrikoia emakumeen kategorian, 41:04 denbora eginda, eta honelako probetan lortu duen lehen garaipena izan da elgoibartarrantzat. 325 metro igerian; 11 kilometro bizikletan eta 2,5 kilometro antxixika egin behar izan zituzten parte hartzaileek. Guztira, 62 mutilek eta 24 neskak parte hartu zuten, eta Lendinezekin batera, beste hiru elgoibartar ere izan ziren Hondarribiko triatlóiari: Nerea Lendinez bosgarren postuan sailkatu zen, 48:35 denborarekin; Jon Agirrebeña seigarrena izan zen, 40:56 denborarekin; eta Roberto Alonso 34. sailkatu zen, 49:08 denborarekin.

Mendi irteera domekan, Altzola inguruan

Zubibai elkarteak antolatuta, mendi irteera egingo dute domekan, Altzola inguruan. Ballegoitti eta Bigoin inguruak zeharkatu ondoren, Altzolan bertan amaituko dute ibilaldia. Bi ordu eta 45 minutuko iraupena izango du irteerak gutxi gorabehera, eta amaieran, mokadutxo egiteko aukera izango dute mendizaleek. Interesatuak 10:00etan agertu daitezke, Altzolako iturrira.

Ekainaren 12an zabalduko dituzte Mintxetako igerilekuak

Mintxetako aire libreko igerilekuak ekainaren 12an irekiko dituzte. Ekainean eta uztailean 10:00etatik 21:00etara egongo dira zabalik, eta abuztuan eta irailean 20:00etan itxiko dituzte. Kirol Patronatutik emandako datuen arabera, iaz 55.000 erabiltzaile ibili ziren igerilekuetan, eta uztailean 11n ibili zen jende gehien. Denboraldiko bonoa egin nahi duenak Kiroldegian jaso dezake informazio guztia.

Concepto Createch areto futboleko taldea, hirugarren

Amaitu da Areto Futbol txapelketa, eta Elgoibarko Concepto Createch taldea hirugarren postuan geratu da. Mailaz igotzea zuten helburu, baina azkenean ez dute lortu.

Lagunak eta Sigmako pilota txapelketak hasi dira

Lagunak pilota txapelketa hasi da, eta ekainaren erdialdera arte iraungo du. Benjamin, alebin eta infantil mailako pilotariak hartuko dute parte. Bestalde, maiatzaren 20an hasi zen Sigmako pilota txapelketa. Lehen mailan hamar bikotek hartuko dute parte, eta bigarrean, zazpi. Urtero bezala, Santiago Egunean, uztailean 25ean jokatu dute finala.

Elgoibar eta Mendaroko 27 txirrindulari, Covadongako Lakuetako klasikoan

2.400 lagunek amaitu zuten, 105 kilometroko proba

Elgoibarko eta Mendaroko 27 txirrindularik hartu zuten parte joan zen zapatuan Covadongako Lakuetako (Asturias, Espainia) klasikoan. Guztietan bizkorrena Gorka De La Horra izan zen. Altolakoa txirrindularia sailkapen nagusiko 32. postuan sailkatu zen 3:31:44 denborarekin; hau da, irabazlearengandik 14 minutu eta 27 segundora. Guztira, 2.400 txirrindularik amaitu zuten 105 kilometroko proba.



Unai Muñoz, mendararra.

32. Gorka De La Horra Irastorza	3:31:44
74. Carlos Rodriguez Mariño	3:38:14
87. Ignacio Diaz Alberdi	3:40:15
294. Gotzon Zulaika	3:56:23
305. Miguel Angel Urkiza	3:57:04
345. Garikoitz Muñoz Blazquez	3:59:02
423. Igor Iraolagoitia	4:04:06
433. Jonatan Romera Herrero	4:05:06
496. Unai Muñoz Olazabal	4:07:48
589. Iosu Juaristi	4:13:04
631. Josu Motriko	4:15:05
691. Ander Zulaika	4:18:49
761. Enekoitz Elorza	4:22:55
939. Mario Romero	4:30:28
1.044. Raul Santamarta	4:36:17
1.116. Alberto Diaz Regueiro	4:40:15
1.183. Oier Irazabal Garciandia	4:42:36
1.193. Francisco Javier Rubio	4:43:01
1.271. Alberto Seijas Casado	4:46:16
1.291. Ion Irazabal Garciandia	4:46:47
1.295. Aitzol Urain	4:46:54
1.320. Israel Soto	4:48:32
1.601. Arkaitz Martinez Irizar	5:01:49
1.640. Borja Rodriguez	5:03:29
1.658. Ricardo Huidobro Torinos	5:04:13
1.745. Egoitz Mendikute	5:09:01
2.267. Alfredo Irusta Ayerza	5:45:33

Igoera fasetik kanpo geratu da Haundi, Marino Luanco taldearen kontra 2-0 galdu ondoren

Haundik 2-0 galdu zuen zapatuan Luancon (Asturias) Marino taldearen kontra, eta hortaz, Bigarren B Mailara igotzeko ligaxkatik kanpo geratu da. Joanekeo partidari 0-1 galdu zuten Mintxetan, eta emaitza horri buelta emateko ilusioz joan ziren Haundiko jokalariek. Golak sartzeko aukerak izan zituzten arren, ez zuten asmatu. Bai, ordea, asturiarrek. Lehenengo zatian sartutako golak lur jota utzi zituen elgoibartarrak, eta bigarren zatian mirariaren bila irten baziren ere, Marinok bigarrena sartu zuen, eta kanporaketa erabaki zuen.



EMAITZAK

FUTBOLA

Marino Luanco **2** – Haundi **0** (Igoera fasea)
Elgoibar **2** – Kostkas **0** (Jub.)
Elgoibar **4** – Oartzun **0** (Kad. A)
Aretxabaleta **1** – Elgoibar **2** (Kad. B)
Elgoibar **3** – Ordizia **3** (Inf.)
Aloña Mendi **0** – Elgoibar **3** (Neskak)

ESKU PILOTA

Lagunak txapelketa
Urruzola **18** – Ayesta **12** (Aleb.)
Vargas **18** – Royo **7** (Aleb.)
Beraza **18** – Gurrutxaga **4** (Aleb.)
Bereziartua **5** – Iruondo **18** (Aleb.)
Astigarraga **18** – Beristain **7** (Benj.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Createch Elg. **7** – Iturriondo **2**

ESKUBALOIA

Alkorta Elg. **29** – Trapagaran **25** (Sen. mut.)
Usurbil **19** – Grupo Eibar Elg. **24** (Jub. nesk.)
Egia **38** – Beristain Elg. **18** (Jub. mut.)
Amaña **17** – Aterpe-Ikus Elg. **17** (Kad. nesk.)
Aiala **28** – IMH Elg. **14** (Kad. nesk.)
Pneumax Elg. **29** – Urola **29** (Kad. mut.)
Ikus Elg. **20** – Aiala **12** (Inf. nesk.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, **29**
15:30 Elgoibar – Ostadar (Neskak)

Mendaroko Pala Txapelketa

Mendaroko Gazte Asanbladak bikotekako pala txapelketa antolatu du, eta ekainaren 2an amaituko da izena emateko epea. Parte hartze-ko, bikoteko 20 euro ordaindu behar harko ditu. Ekainaren 7an hasiko da txapelketa, eta uztailaren 9an izango da finala. Partidak eguenetan jokatuko dira, 19:00etatik aurrera. Ekainaren 4an txapelketari buruzko informazioa emateko bilera egingo dute Gaztetxean.

Ikus txapeldun, Gipuzkoako eskubaloia txapelketan

Sanloko ikus taldeak Gipuzkoako eskubaloia txapelketa irabazi du, infantiletan, Zarauzko Aiala taldeari 20-12 irabazi ondoren. Datorren asburuan Euskadiko Txapelketako finala jokatuko dute, Arabako eta Bizkaiko txapeldunen kontra.

LANA

ESKAERA

- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko edo tabernan lan egiteko prest. ☎ 609 217 705
- Neska sukaldari laguntzaile lanak egiteko prest. Bost urteko esperientzia. ☎ 600 020 985
- Mutila zerbitzari lanak egiteko prest. 13 urteko esperientzia daukat. Hemengoa. ☎ 699 282 308
- 50 urteko emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ 626 206 635
- DBHko gaztelania eta matematika klaseak emango nituzke ekainean eta uztailean. Talde txikiak. ☎ 943 744 206
- Neska lanerako prest. Tabernak, portalak edo elkar-teak garbitu edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎ 699 609 190
- Emakumea lanerako prest. Interna moduan edo orduka. Eperientzia daukat. ☎ 628 014 327
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ 636 120 425
- Emakumea garbiketa lanak egin, eta nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ 686 234 612
- Emakumea astean zehar lan egiteko prest. Interna moduan, etxeak garbitzen edo umeak zaintzen egingo nuke lan. ☎ 666 771 701
- Gizona sukaldari laguntzaile, lorazain edo igeltsero laguntzaile lanetarako prest. ☎ 688 647 664
- Neska gaztea, umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 657 142 376
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Portalak edo tabernak ere bai. ☎ 663 786 976
- Ordenagailuak konpontzen dira. Merke. Etxez etxeko zerbitzua. ☎ 646 743 828
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ 648 603 029

- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 666 008 974
- Neska nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Gauzez. ☎ 646 821 678
- Mutila baserrian edo tabernan lan egiteko prest. ☎ 686 077 316
- Mutila lanerako prest. Igeltsero, sukaldari laguntzaile, nagusi zaintzaile... ☎ 688 647 664
- Neska nagusiak zeintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Edozein ordutan. ☎ 638 344 377 / 943 530 795
- Mutila lanerako prest. Igeltsero, sukaldari laguntzaile, nagusi zaintzaile... ☎ 638 344 377

ESKAINNTZA

- Familia euskaldun batek Au-Pair bat behar du beraiekin bizitzeko. Irailetik uztaiera. mirenlondon@hotmail.com
- Zerbitzaria eta sukaldari laguntzailea behar dira. ☎ 943 743 196
- Kamareroa behar da. ☎ 634 799 201

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Emakumea alokatzeko etxe bila. Bi logela, eta kontratoarekin. ☎ 600 020 985
- Etxea hartuko nuke alokairuan, bikotea eta ume barentzako. ☎ 699 282 308
- Etxea salgai Elgoibarko erdigunean. Eguzkitsua, eta logela guztiak kanpoaldera begira. Bi logela eta egongela. Berritua. 133.000 euro. ☎ 620 748 635
- Etxea salgai. Eguzkitsua eta balkoiarekin. Berritua. Sukalde handia, bi logela eta egongela. Prezio onean. ☎ 699 209 844

- Etxea salgai Caparrosen. Hiru solairukoa. 150.000 euro. Negoziatzeko prest. ☎ 652 768 970
- Etxea salgai Ubiltarten. Bi logela, sukalde-jangela, koina eta ganbara. Dena berritua. 180.000 euro. ☎ 629 402 313
- Etxea alokatzen dut Mintxetan. ☎ 669 627 655
- Etxea alokatzen da Santa Ana kalean. Hiru logela. 525 euro, gastuak barne. ☎ 629 314 242

GARAJEAK

- Autoa edo furgoneta sartzeko moduko garajea alokatzen dut Santa Ana kalean. Merke. ☎ 646 966 198
- Marradun garajea alokatzen dut Leku Ederren, 4. solairuan. 55 euro hilean. ☎ 660 042 159
- Garaje itxia alokatzen da Jausoro Plazan. Udaletxetik gertu. ☎ 628 764 686

LOKALAK

- 125 metro koadroko lokala alokatzen dut, erosteko aukerarekin. Lehen taberna zen eta elkarre bat egiteko edo biltegi moduan erabiltzeko egokia izan daiteke. ☎ 649 446 716 (19:00etatik 22:00etara)

ZORIONAK

OSPAKIZUNAK KINTOAK



Aurten 60 urte bete ditugunok egun polita igaro genuen joan zen zapatuan. Denok elkartu eta aspaldiko kontuez berba egiteko aukera izan genuen. Ederra izan zen.



• Zorionak, **Aritz eta Naroa**, gaur ostirala zuen bosgarren urtebetetzea delako. Zuen familiakoen partez.



• Zorionak, **aitiña Manuel eta Maren**, bihar eta asteazkenean urteak betetzen dituzuelako. Muxu handi bana, etxeokoen partez.



• Zorionak, **Oier** 10 urte egin zituen atzo gure pirata nagusiak. Patxo pila, etxeko denon partez.



• Zorionak, **Anton**, bihar 8 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiako-en partez. Ondo pasa zure eguna.



• Zorionak, **Nahia**, etxeko-en eta bereziki Mararen, Eleneren eta Oihanen partez.



• Zorionak, **Jon**, gaur 9 urte bete dituzulako. Familia guztiaren partez, bereziki aita eta amaren partez.



• Zorionak, **Jokin**, asteazkenean 12 urte egin zenituelako. Hamabi muxu potolo, etxeko-en partez.



• Zorionak, **printzesa**, 5 urte egin dituzulako. Milla muxu, etxeko-en eta laguneren partez.



• Zorionak, **Iago**, maiatzaren 26an urte bat egin zenuelako. Etxeko-en, eta bereziki, Juneren partez.



• Zorionak, **gazte**, zure hogeita *hamapikugarren* urtebetetzean! Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Haritz**, gaur zure seigarren urtebetetzea delako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Adrian**, 4 urte egin dituzulako. Muxu handi bat, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Haizea**, maiatzaren 22an 11 urte egin zenituelako. Familiako-en, eta bereziki, Markelen partez.



tez.
• Zorionak, **Sara**, 11 urte bete dituzulako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Anartz**, maiatzaren 27an 3 urte egin dituzulako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Irune**. Azkenean heldu da zure laugarren urtebetetzea! Milla muxu printzesa politenarentzat. Aitaxo eta amatxo.



• Zorionak, **Nagore**, zure zazpigarren urtebetetzean. Muxu bat, familiako guztien partez.



• **Maiatzeko gure loriari, etxeko printzesari**, zorionak eta milla muxu, bere hamargarren urtebetetzean, etxekuen partetik.



• **Aita eta aittita onenarentzat**, mila muxu, familia guztiaren partez.

ZORIONAK



Zorionak, **Gari, June eta Arhane**, zuen bigarren urtebetetzean. Ondo pasa igandean!. Alaini ere, zorionak.

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro.

Argazki bikoitza: 3 euro.

Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.

BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edo

barren@elgoibarkoizarra.com

e-postara bidali.

OKINDEGIA

30 domeka **FOTERO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 28 Zabaleta
- 29 Etxeberria (Errosario)
- 30 Etxeberria (Errosario)
- 31 Ibañez
- 1 Garitaonandia-Bidasolo
- 2 Etxeberria (Santa Ana)
- 3 Fernandez
- 4 Yudego

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBARREN.net



29 zapatua

Kirola

9:30 Urpekaritza saioa
Ur Bizik antolatuta, urpekaritza probatzeko aukera izango da. Olaizaga kiroldegian.

Jai

21:30 Lerun Txiki baserri okuparen bosgarren urteurrena
Karkaba, Koello 104, KaosareNerasoak, Atraku eta El fuego y la palabra taldeek kontzertua eskainiko dute. Ondoren, Dj Milaka kolore, Jokin eta Mark arituko dira musika jartzen.

30 domeka

Kirola

9:30 Mendi irteera
Altzola inguruan egingo dute ibilaldia, Zubibai elkarateak antolatuta.

1 martitzena

Jaialdia

19:00 Herri Eskolakoen jai
Herriko Antzokian.

2 eguaztena

Jaialdia

19:00 Herri Eskolakoen jai
Herriko Antzokian.

3 eguena

Jaialdia

19:00 Herri Eskolakoen jai
Herriko Antzokian.

Erakusketa

19:00 Pilar Ikastetxea
Ikastetxeari buruzko erretretuen erakusketa inauguratuko dute Kultur Etxean. Hilaren 13ra arte egongo da ikusgai.

LUDOTEKAKO EKINTZAK

**PIN PONG-A
GUSTUKO DUZU?
BARIXAKUAN PIN PONG
OUTDOOR LEHIAKETA!!!!
18:00ETATIK AURRERA.
ANIMA ZAITEZ!!!**

GAZTELEKUKO EKINTZAK

**ESKERRIK ASKO
LUDOTEKAKO
ASTE NAGUSIKO
EKINTZETAN
PARTE HARTU
DUZUEN GURASO
ZEIN HAURREI.
ZUEK GABE EZINGO
GENUEN AURRERA
ERAMAN**

**«Green zone:
distrito protegido»**
29, zapatua: 19:00/22:15
30, domeka: 19:00
31, astelehena: 21:30

AEB, 2010. Zuz.: Paul Greengrass.
Akt.: Matt Damon, Jason Isaacs,
Greg Kinnear. 115 min. 2003. urtea
da. AEBetako tropek Irak okupatu du-
te. Roy Miller bigarren lotinartari eta
haren taldeari misio bat jarri diete: ba-
samortua zeharkatu behar dute, eta
suntsipen handiko armak bilatu behar
dituzte. Miller konturatuko da aurkitzen
zailena den arma egia dela.



TRINITATE JAIAK



28 BARIXAKUA

17:30 Kiribilka

Plaza Handian.

19:00 Toborro magoa

Madalako parkean.

22:15 Dantza ikuskizuna

Gernika mihise gainean,
Herriko Antzokian.

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleen ikuskizuna, Plaza Handian. Euria egiten badu, kiroldegian.

Ondoren, Kale Kantariak
00:00 Nagusien danborrada

29 ZAPATUA

10:00 Azoka berezia

Elgoibarko baserrietako produktuak erosi eta dastatzeko aukera izango da. Leku Ederren eta Plaza Txikian.

10:30 Musika eskolako trikilarien eta txistularien kalejira

12:00 Elgoibarko Kale Kantariak

12:30 Idi demak

Belarreta eta Valdesen idiak harri beltza mugitzen ahaleginduko dira.

18:00 Dantza saioa

30 DOMEKA

9:00 Diana

Txistulariekin.

10:30 Artisau azoka

Leku Ederren.

11:00 Meza nagusia

Parrokiako abesbatzak kantatuko du.

12:00 Urmeen danborrada

17:30 Erraldoi eta buruhandiak

Zezenzikletak eta dultzaineroekin.

19:00 Zero Sette akordeoi taldearen kontzertua

Madalako parkean.

#Gipuzkoa

lan munduratzeara

herrilan eta azpiegiturak



teknologia eta berrikuntza

enpresei laguntzea

Krisiaren aurkako 2010 Plana

100 milioi euro

Gipuzkoan badugu Plana:

Inbertsio publikoa azkartzea, enplegua sortzea eta gure enpresei laguntzea, berrikuntzaren aldeko apustu irmoa dela medio.

OBRA PUBLIKOA ETA AZPIEGITURAK

Inbertsio publikoa azkartzea, lurralde osoak ahalmen handiko bide-sare ezin hobea izan dezan.

ENPRESEI LAGUNTZEA

Estualditik ateratzeko, berregituratzeko eta proiektu lehiakorak sustatzeko neurriak bideratzea.

ENPLEGUA SORTZEA

Lan-munduan sartzen laguntzea zailtasun bereziak dituzten taldeei eta enpresetako gizarte-balioak sustatzea.

TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Zientzia eta teknologiako azpiegiturak garatzea eta berrikuntzaren aldeko apustua egitea, merkatu globalean lehiakortasun handiagoa izateko.



TRINITATE JAIAK MADALAN

29 ZAPATUA

Eguerdian, Sagardo dastaketa

Bigarren urtez, Elgoibarko baserrietan egindako sagardoa dastatzeko aukera izango da Leku Eder parkean.

Gauean, 'Burua erabili' festa

23:00etan Governors eta Potemkin taldeek kontzertua emango dute Gaztetxean.

Sarrera doan izango da, baina sartzeko buruan zerbait eraman behar da: txapelak, biserak, lorak...







DANOBAT

26BIEMH

1 pabiloi
Stand D24/F23



Makina Erramienta Fabrikatzailea



ZERRAK ETA TALADROAK



TORNUAK



ARTEZTEKO MAKINAK

DANOBATGROUP

DANOBAT KOOP. E.
Arriaga kalea, 21
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 74 80 44
Faxa: 943 74 31 38
www.danobat.com





OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda. Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Bach loreak, P.N.L., janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Familia konstelazio tailerrak. Quantum scio (alergiak...). Naturopata eta makrobiotika kontsultak ordua aurrez hartuta. San Bartolome, 29 - Tel: 943 744 031 Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Ildoa) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

Mendaro: Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

Pakene Ongizate Integraleko Zentru Berria

(Azterketa biologikoa eta osteopatia, Naturopatia, Homeopatia, Fitoterapia Txinatarrak, Nutrizio ortomolekularra, Elikagaien jasangarritasunak, Bach-en loreak...). Tel: 943 254 505

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea

(bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa

bendajea). San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)

Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurria egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behea

Tel: 943 741 645

Ordutegia: 9:30-13:30 / 15:30-19:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Jausoro, 6 behea.

Goiz eta arratsaldez.

Tel.: 943 531 953 / 669 565 745

Andoni Schmidt Larrañaga

Etxerako Fisioterapia

Jende nagusia, neurologia, errehabilitazio orokorra, masajeak. Ekipo portatila. Ordua eskatu.

San Roke 8, behea - Tel.: 689 926 016

Kontsulta ere badaukagu.

ORTOPEDIKAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Tel: 943 74 35 62

OPTIKAK

Ikus optiko-optometriska

San Bartolome, 10

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Tel: 943 743 734

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behea (Ermua)

Tel: 943 177 134

irale@irale.com - www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo.

Aita Agirre enparantza, 5 behea.

Tel: 943 530 053 - lekueder@infomed.es

Beitia Arriola


- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea

Tel: 943 531 869



DACC

- Arropak 46 tailatik
80 arte
- Osagarriak:
pultserak, belarritakoak...
- Merkatuko marka
ezagunenekin egten dugu lan
(Lola Casademunt, Paca Garcia, Biluzik...)

**ZATOZ ETA
PRESTA
ZAITEZ
JAIETARAKO
GURE ARROPA
AUKERA
ZABALAREKIN!!**

